EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

# BILKURA EGUNKARIA
# DIARIO DE SESIONES

IX. legegintzaldia / IX legislatura — N.º 34 zk.

2009ko abenduaren 23an egindako bilkura

VITORIA-GASTEIZ

AURKIBIDEA


2 or. *Hasiera eman zaio bilkurari.*

2 or. ***Lege-proiektua, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legea aldatzekoa***

2 or. . Botazioa.

. Maneiro Labayen, Arana Etxezarreta eta Larrazabal Antia jaunek eta Garrido Knörr, Laespada Martínez eta Ansotegi Elordi andreek beren botoak azaldu dituzte.

7 or. ***Legebiltzarraren adierazpena, Kopenhagueko klimaren gailurrari buruz***

. Lehendakariak erakunde-adierazpena irakurri du.

8 or. *Amaiera eman zaio bilkurari.*


Sesión celebrada el 23 de diciembre de 2009

VITORIA-GASTEIZ

ÍNDICE


Pág. 2 *Se abre la sesión.*

Pág. 2 ***Proyecto de ley de modificación de la Ley de Atención y Protección a la Infancia y a la Adolescencia***

Pág. 2 . Votación.

. Explican su voto los señores Maneiro Labayen, Arana Etxezarreta y Larrazabal Antia y las señoras Garrido Knörr, Laespada Martínez y Ansotegi Elordi.

Pág. 7 ***Declaración institucional en relación con la cumbre del clima de Copenhague***

. La presidenta da lectura a la declaración institucional.

Pág. 8 *Se levanta la sesión.*

*Eguerdiko hamabi eta hogeita hamabian hasi da bilkura.*

**LEHENDAKARIAK** (Quiroga Cia): Como les decía, señorías, es verdad que hemos agotado este orden del día, pero tenemos una segunda sesión plenaria, con un asunto único en el orden del día, que es: "Debate y resolución definitiva sobre el dictamen formulado por la Comisión de Políticas Sociales, Trabajo e Igualdad, en relación con el proyecto de ley de modificación de la Ley de Atención y Protección a la Infancia y a la Adolescencia".

Les tengo que preguntar, señorías, si algún miembro de la comisión va a intervenir en defensa del dictamen. Entiendo que nadie…

Por favor, les pido que no abandonen el pleno porque vamos a proceder a la votación rápidamente, porque, si no hay intervenciones, votamos, y voy aprovechando para preguntar si algún grupo va a intervenir en el turno de explicación de voto.

Turno de explicación de voto…, entiendo que todos. ¿Aralar, también, turno de explicación de votos? No. Del Grupo Mixto, ¿el señor Maneiro va a intervenir en turno de explicación de voto?

Bien, pues, lo vamos a tener complicado para repartir los tiempos.

Bien, señorías, no habiéndose presentado votos particulares al dictamen ni reservado enmiendas, de acuerdo con el artículo 140.2 del Reglamento se somete directamente a votación el dictamen en su totalidad. Podemos votar. *(Geldiunea)*

*Botazioa eginda, hauxe izan da emaitza: emandako botoak, 75; aldekoak, 43; aurkakoak, 32; abstentzioak, 0; zuriak, 0.*

**LEHENDAKARIAK**: Por tanto, queda aprobada la Ley de modificación de la Ley de Atención y Protección a la Infancia y a la Adolescencia.

Turno de explicación de votos. Comenzamos de menor a mayor. Señor Maneiro, tiene la palabra.

**MANEIRO LABAYEN** jaunak: Gracias, presidenta. Desde el escaño.

Únicamente quería decir que por error me he abstenido en la votación en la que debía haber votado que sí. Con lo cual, que conste en acta. Me refiero al tema de los Presupuestos…

**LEHENDAKARIAK**: Señor Maneiro, por favor. Estamos en otro punto, y es su turno de explicación de su voto, el de ahora, el del proyecto de ley del menor. Por favor. Gracias.

Señor Arana, tiene la palabra. Gracias.

*Se abre la sesión a las doce horas y treinta y dos minutos del mediodía.*

La **PRESIDENTA** (Quiroga Cia): Esan dizuedan bezala, legebiltzarkideok, egia da gaurko gai-zerrenda agortu dugula, baina badugu bigarren osoko bilkura bat, gai-zerrendan gai bakarra duena, hauxe: "Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordearen irizpena, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legea aldatzeko lege-proiektuaren gainean egindakoa. Eztabaida eta behin betiko ebazpena".

Legebiltzarkideok, batzordeko kideren batek irizpenaren alde hitz egingo ote duen galdetu behar dizuet. Ezetz iruditu zait...

Mesedez, osoko bilkuratik ez joateko eskatzen dizuet, berehala egingo dugulako bozketa. Izan ere, hitzaldirik ez bada, bozkatu egingo dugu. Aukeraz baliatuz, botoa azaltzeko txandan talderen batek hitza hartu nahi ote duen galdetuko dizuet.

Botoa azaltzeko txanda... guztiok, beraz. Aralarrek ere botoa azaltzeko txanda? Ez. Talde Mistoari dagokionez, Maneiro jaunak hartuko al du hitza botoa azaltzeko txandan?

Bada, tira, zail samarra izango dugu denborak banatzeko.

Legebiltzarkideok, irizpenaren inguruko boto partikularrik ez denez izan eta zuzenketarik ez denez gorde, Erregelamenduaren 140.2 artikuluaren arabera, zuzenean bozkatuko dugu irizpena, bere osotasunean. Eman dezakegu botoa. *(Pausa)*

*Efectuada la votación, el resultado ha sido el siguiente: votos emitidos, 75; a favor, 43; en contra, 32; abstenciones, 0; en blanco, 0.*

La **PRESIDENTA**: Hortaz, onetsi egin da Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko Legea aldatzeko Legea.

Botoa azaltzeko txanda. Txikienetik handienera hasiko gara. Maneiro jauna, zurea da hitza.

El Sr. **MANEIRO LABAYEN**: Eskerrik asko, lehendakari andrea. Eserlekutik.

Besterik gabe esateko akats bat dela medio abstenitu egin naizela bozketan, nahiz eta baiezkoa bozkatu behar nuen. Beraz, aktan jasota gera dadin. Aurrekontuen gaiari buruz ari naiz...

La **PRESIDENTA**: Maneiro jauna, mesedez. Beste puntu batean gaude, eta botoa azaltzeko txanda duzu, oraingoa, haurren lege-proiektuaren ingurukoa. Mesedez. Eskerrik asko.

Arana jauna, zurea da hitza. Eskerrik asko.

**ARANA ETXEZARRETA** jaunak: Eskerrik asko, presidente andrea.

Oso arin, oso denbora gutxi dudalako. Gure bozka ezezkoa izan da, eta lehengo astean esan nuen bezala, erabaki honek soilik gaitz egiten dielako haur eta nerabeei, beste inori ez.

Berriro ere esango diguzue arrazoia izan dela defendatzaileak eta Arartekoak gauza bera egiten dutela, solapatu egiten direla eta, bestela, foru-aldundiek eta udalek egin dezaketela.

Ez ditut lehengo asteko argudioak errepikatuko, baina, gutxienez, gustatuko litzaidake Adin Txikikoen Fiskaliak adierazten duena hona ekarri eta plazaratzea, zeren eta fiskalia horrek, espediente osoan dagoen organo independente bakarrak, esaten du ez dagoela solapamenturik eta, beraz, bere logika bazeukala organo hau mantentzeak.

Coincide, por lo tanto, la Fiscalía del Menor con nuestros argumentos, y coincide con la idea de que la especificidad de los derechos y necesidades de los menores recomiendan la creación de instituciones garantes de derechos con una condición, especialización y un requisito esencial de experiencia en estas funciones.

Behin eta berriro errepikatuko duzue gauza bera, baina jakin, badakizue arrazoirik ez duzuela. Haur eta nerabeak beraientzako zehazki eratutako instituzio bat gabe geratuko dira, modu zehatzean beraiek defendatzeko inor gabe, eta, dirudienez, hau zen oraintxe bertan onartu duzuen Aurrekontu osoko jasanezin zen gastu bakarra.

Hau da aurten Gobernu honen lehen urtean eztabaidatuko dugun azken gaia; urtea bukatuko dugu, beraz, aurreko legealdian gustuko ez zenuten erabaki bati –beste bat, alegia– buelta emanez. Bada, ondo da, soilik espero dut etorkizunean damutu behar ez izatea eta horrelako beste organorik sortu behar ez izatea.

Eta, behintzat, esan zaigunean Arartekoaren baitan horrelako organoren bat sortuko zela edo estruktura bat sortuko zela, espero dugu, behintzat, modu arinean eta ahalik eta azkarren eratzea.

Y para acabar, y aprovechando las fiestas que son, quería acabar esta última intervención en esta tribuna deseándoles a todos y todas los presentes y los que se han ido feliz año nuevo.

Eskerrik asko.

**LEHENDAKARIAK**: Gracias, señor Arana.

A continuación tiene la palabra el señor Larrazabal.

El Sr. **ARANA ETXEZARRETA**: Muchas gracias, señora presidenta.

Muy rápido, pues dispongo de poco tiempo. Nuestro voto ha sido contrario, y como dije la semana pasada, porque esta decisión perjudica a menores y adolescentes, a nadie más.

Nos volverán a decir que la razón ha sido que el Defensor y el Ararteko hacen lo mismo, que se solapan y, si no, que pueden hacerlo las diputaciones forales y los ayuntamientos.

No volveré a repetir los argumentos de la pasada semana, pero, al menos, me gustaría traer aquí y hacer público lo que dice la Fiscalía de Menores, el único órgano independiente de todo el expediente, que dice que no existe solapamiento y, por tanto, que tenía su lógica mantener este órgano.

Beraz, Adingabeen Fiskaltza bat dator gure argudioekin, eta bat dator beste ideia honekin: adingabeen eskubideak eta premiak hain direnez bereziak, gomendagarria da eskubideak bermatuko dituzten erakundeak sortzea, funtzio horien inguruko esperientzia izango dutenak, baldintza, espezializazio eta funtsezko eskakizun gisa.

Han repetido sin cesar lo mismo, pero saben que no tienen razón. Los y las menores y adolescentes se quedarán sin una institución creada propiamente para ellos y ellas, sin nadie que les defienda concretamente, y, según parece, éste era el único gasto insostenible que todo el Presupuesto que acaban de aprobar.

Éste es el último tema que debatiremos este año, el primer año de este Gobierno; por tanto, acabaremos el año dándole la vuelta a una decisión –o sea, otra– que no les gustó la legislatura pasada. Pues, bien, sólo espero que en el futuro no haya que arrepentirse y haya que crear otro órgano así.

Y, cuando se nos ha dicho que dentro del Ararteko se crearía un órgano o una estructura así, espero que, cuanto menos, se cree lo antes posible.

Azkenik, zein garaitan gauden kontuan izanik, hemen zaudeten guztioi eta dagoeneko joan direnei urte berri ona opa dizuedala esanez amaitu nahi nuke mintzatoki honetako azkeneko hitzaldia.

Muchas gracias.

La **PRESIDENTA**: Eskerrik asko, Arana jauna.

Ondoren Larrazabal jaunak izango du hitza.

**LARRAZABAL ANTIA** jaunak: Bai, zure baimenarekin, jarlekutik.

Penagarria da, gure iritzian, hogei urte betetzen diren momentu honetan Nazio Batuen Erakundean Konbentzioa izenpetu zenetik, hain zuzen, adin txikikoen alde, orain defentsoria hau desagertzea alternatibarik gabe.

Momentu honetan, eta hau da kritika, ez dago alternatibarik, ez dago presente alternatibarik. Esaten da agian Arartekoak hartuko duela, ez dakit zer..., baina hemen ez dago ezer, hemen kendu egiten da lehenbizi, eta ikusiko dugu zer jartzen den edo zer ez den jartzen.

Eta ematen du bidea zabaltzen doala. Atzo jakin genuen Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Defentsoriaren ardura zuenak dimisioa aurkeztu zuela; beraz, bidea erraztua dago berriro ere aldaketaren Gobernuarentzat, aldaketa egin dezan, aldaketa egin nahi baldin badu, ez pertsonarena, baita erakundearena ere. Aurrera aldaketarekin, baina 2010, egia esango dizuet, bakarren batzuei ez datorkigu urte oso ona. Beno, pasatuko dugu ahalik eta ongien, eta guk baino hobeto pasatzeko aukera izango duzuenoi zorionak eta urte berri on, edozein modutan ere, gainontzeko guztioi.

**LEHENDAKARIAK**: Gracias, señor Larrazabal.

A continuación tiene la palabra la señora Garrido.

**GARRIDO KNÖRR** andreak: Gracias, señora presidenta. Egun on, lehendakaria, sailburua eta legebiltzarkide guztiok.

Gaur Haurren eta Nerabeen Defentsoria desagertuko da aprobazio honekin, eta, horretarako, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko Legea aldatzeko legeproiektua onetsi dugu.

Guk mantendu dugun jarrera izan da betidanik gai honi buruz beti defendatu duguna. Eta, gainera, hau argi geratu zen eta Alderdi Popularraren iritzia argi geratu zen hau eztabaidatu zenean.

Nik uste dut argudioak oso argi daudela: Alderdi Popularrak bere momentuan eta oraintxe bertan errepikatzen du nola beste instituzio bat dagoen, Ararteko dago, eta defentsoriak egiten zuen lan guztia egin dezake, eta hori da guk beti defendatu duguna.

Eta, gainera, desagertzen bada defentsoria, eskumenak argituko dira, eta, alde horretatik, Arartekoak bere lana hobeto egin dezake kolektibo honi buruz.

Eta, gainera, eskumenen arazoak ez dira egongo eta instituzio bakoitzaren funtzioak argiago egongo dira.

El Sr. **LARRAZABAL ANTIA**: Sí, con su permiso, desde el escaño.

En nuestra opinión, es lamentable que en este momento en el que se cumplen veinte años de la firma de Convención en el Organismo de las Naciones Unidas a favor de los y las menores, desaparezca esta defensoría sin ninguna alternativa.

En este momento, y ésta es la crítica, no existe alternativa, no hay ninguna alternativa presente. Se dice que a lo mejor la incluirá el Ararteko, y no sé qué..., pero aquí no hay nada, aquí primero se elimina, y luego ya veremos lo que se pone y lo que no.

Y parece que se va ampliando esa vía. Ayer supimos que el responsable de la Defensoría para la Igualdad entre Mujeres y Hombres presentó su dimisión; así, se abre una nueva vía de cambio para el Gobierno, para que cambie, si quiere cambiar, no sólo a la persona, también la institución. Adelante con los cambios, pero la verdad es que 2010, para unos pocos, no va a ser un año muy bueno. Bueno, lo pasaremos lo mejor posible, y para quienes tendrán la oportunidad de pasarlo mejor que nosotros feliz navidad y próspero año nuevo, y de cualquier manera, también a todos los y las demás.

La **PRESIDENTA**: Eskerrik asko, Larrazabal jauna.

Ondoren Garrido andreak izango du hitza.

La Sra. **GARRIDO KNÖRR**: Eskerrik asko, lehendakari andrea. Buenos días, lehendakari, consejero y señores y señoras parlamentarias.

Hoy desaparecerá la Defensoría de los y las Menores y Adolescentes tras esta aprobación, y, para ello, hemos aprobado el proyecto de ley para modificar la Ley de Protección del Menor.

La postura que hemos mantenido es la que siempre hemos defendido en torno a este tema. Y, además, esto quedó claro y la opinión del Partido Popular quedó clara cuando se debatió este tema.

Creo que los argumentos están muy claros: El Partido Popular dijo en su momento y repite ahora que existe otra institución, que existe el Ararteko, que puede hacer todo lo que hacía la Defensoría, y eso es lo que hemos defendido siempre.

Y, además, si desaparece al defensoría, se aclararán las competencias, y, por esa parte, el Ararteko podrá realizar mejor su trabajo en torno a este colectivo.

Y, además, no existirán conflictos de competencias y estarán más claras las funciones de cada institución.

Como decía, la postura del Partido Popular es coherente en relación con esta defensoría. En su momento no entendimos justificada la creación de una figura de estas características por creer que existía ya una institución de tipo generalista que se dedicaba a la atención a este colectivo, que hay que recordar que es un colectivo especialmente vulnerable, pero que siempre, y ya antes de que se constituyera esta institución de la defensoría, merecía una atención especial por parte del Ararteko.

También hay que recordar que aquí se optó por una opción inédita por la que en ninguna comunidad autónoma se había optado, porque las comunidades autónomas que optaron por una institución especial del tipo de la defensoría que aquí se creó no tenían una institución de tipo general.

Como decía, está el Ararteko, que resuelve quejas en torno al colectivo de los menores, actúa de oficio y, además, como todos sabemos, elabora informes extraordinarios.

Por lo tanto, hay que decir de forma muy clara que la supresión de la defensoría en absoluto va a menoscabar la atención a este colectivo, y, al contrario, va a servir para clarificar el ámbito competencial existente y simplificar las estructuras institucionales.

Y, aparte, yo creo que está claro también, a tenor de la experiencia de estos años de vigencia de la defensoría, de este periodo corto de vigencia de la Defensoría del Menor, que ha habido una coexistencia de dos instituciones que ha ocasionado un solapamiento de funciones y conflictos de competencia. Y yo creo que, por lo menos, la intención de este grupo es preservar y fortalecer la institución de tipo generalista que ya tenemos, que es el Ararteko, y que precisamente es la que se ocupa de los derechos y libertades del conjunto de los ciudadanos vascos, entre ellos, de este colectivo que, como decía, es un colectivo especialmente vulnerable y que por eso ya requiere y precisa una atención que se la da el Ararteko, especial.

Y nada más, felicitarnos porque al final yo creo que en coherencia, por lo menos, con la postura que ha mantenido este grupo se suprime una institución que no ha sido operativa, que no estaba justificada en absoluto su creación.

También quiero decir aquí que en este punto se ha cumplido un compromiso que tenía el Ejecutivo, y también esperamos que en otras materias en las que hay compromisos pendientes se cumplan cuanto antes.

Nada más, quiero felicitarles las navidades y desearles a todos ustedes un feliz año 2010.

Zorionak eta urte berri on denoi.

**LEHENDAKARIAK**: Gracias, señora Garrido.

Esan bezala, Alderdi Popularrak duen jarrera koherentea da defentsoria horren inguruan. Bere garaian ez zitzaigun iruditu justifikatuta zegoenik gisa honetako ezaugarriak zituen figura sortzea, gure uste bagenuelako talde horretaz arduratzen zen izaera orokorreko erakunde bat. Izan ere, gogoan izan behar dugu bereziki ahula den taldea dela, baina, halaber, beti izan duela Arartekoaren arreta berezia, defentsoriaren erakundea bera sortu baino lehenago ere.

Gogoan izan behar da, halaber, aukera berri baten alde egin zela, autonomia-erkidego bakar batek ere ez baitzuen egin aukera horren alde. Izan ere, hemen sortu zen defentsoriaren antzeko erakunde berezi baten aldeko hautua egin zuten autonomia-erkidegoek ez zuten izaera orokorreko erakunderik.

Esan dudan moduan, Arartekoa hor dago, adingabeen taldearen inguruko kexak ebazten dituena, ofizioz jarduten duena, eta gainera, guztiok jakin badakizunez, aparteko txostenak prestatzen dituena.

Hortaz, argi eta garbi esan behar da defentsoria kentzeak ez duela inola ere gutxituko talde horretan jarritako arreta. Aitzitik, aldaketa hau baliagarri izango da une honetan dugun eskumen-esparrua argitzeko eta erakunde-egiturak sinplifikatzeko.

Horrezaz gain, nire aburuz argi dagoenez, defentsoria indarrean izan dugun urte hauetako esperientziaren argitara, Adingabeen Defentsoriak indarrean eman duen aldi labur honen argitara, bi erakunde horiek hor izateak funtzioak gainjartzea ekarri du berekin eta eskumenen inguruko gatazkak ere sortu dira. Gure taldearen asmoa behintzat dagoeneko badugun izaera orokorreko erakundea, hau da, Arartekoa, babestea eta indartzea da, hain zuzen ere, hori arduratzen delako euskal herritar guztien eskubide eta askatasunez, besteak beste talde horren eskubide eta askatasunez, esan bezala, bereziki ahula delako talde hori eta, hori dela eta, Arartekoak lehendik ere ematen zion arreta berezia behar duelako.

Besterik ez. Gure taldeak izan duen jarrerarekiko koherentziari besterik ez bada ere eutsiz, gustura gaude eraginkorra izan ez den erakunde bat kenduko dugulako, hori sortzea ez zegoelako inola ere justifikatuta.

Puntu honi dagokionez, Jaurlaritzak zuen konpromisoetako bat bete du, eta hori ere esan egin nahi nuen hemen. Beste gai batzuen inguruan hartutako konpromisoak ere lehenbailehen beteko direla espero dugu.

Besterik ez. Eguberri zoriontsua izan dezazuela eta guztioi 2010 zoriontsua opa dizuet.

Feliz Navidad y próspero año nuevo a todos y a todas.

La **PRESIDENTA**: Eskerrik asko, Garrido andrea.

A continuación tiene la palabra la representante del Grupo Socialista, señora Laespada.

**LAESPADA MARTÍNEZ** andreak: Gracias, señora presidenta.

Yo sólo quiero ser muy corta, no quiero repetir los argumentos que ya mencionamos el otro día.

Solamente quería decir que me apena, señor Arana, que usted no acabe de entender las razones de la supresión. ¡Qué le vamos a hacer!

Supongo que en estas cosas la práctica será el mejor ejemplo que podamos dar, y seguramente se dará cuenta de que el Ararteko sí ha estado cumpliendo esta función, sí lo han estado haciendo las diputaciones y los ayuntamientos con los servicios sociales, y en ningún momento va a haber ninguna desprotección de los menores.

Este partido sostiene que los menores son sujetos de derechos, no solamente objeto de protección, sino que son sujetos de derechos, y como tales les queremos considerar.

Y quiero decirles que, bueno, me sorprende que siga usted pensando que esto, de alguna manera, es una especie de venganza, que utilizó la palabra el otro día, pero en este momento no la ha pronunciado. Pero en su discurso sí iba a decir a la señora consejera que, como nosotros no aprobamos en aquel momento la defensoría, ahora que tenemos el Gobierno volvemos otra vez a decidir quitarlo. No, esto es una postura de partido en la cual seguimos pensando que la duplicidad de funciones no debería existir.

Muchas gracias, y, bueno, quiero felicitar el año.

**LEHENDAKARIAK**: Gracias, señora Laespada.

A continuación tiene la palabra la representante del grupo Nacionalistas Vascos.

Señora Ansotegi, tiene la palabra.

**ANSOTEGI ELORDI** andreak: Eskerrik asko, presidente andrea. Egun on guztioi.

Iragandako abenduaren 17an Haurren eta Nerabeen Arreta eta Babesaren Legea aldatzeko lege-proiektua Gobernuari itzultzearen alde bozkatu genuenean esan genuen lege hau aurreko Gobernuak egindako gizarte-zerbitzuen programen hobekuntzen barnean sartzen zela.

Baita ere, kongruentziaz hitz egin genuen, defentsoriaren irudia sakondu eta hobetu behar zela aitortuz, baina, hala ere, gure gizartean bereziki ahula den taldearen eskubideen alde egin genuen.

Ondoren Laespada andreak izango du hitza, Euskal Sozialistak taldeko ordezkariak.

La Sra. **LAESPADA MARTÍNEZ**: Eskerrik asko, lehendakari andrea.

Oso labur hitz egin nahi dut, eta ez ditut errepikatu nahi lehengo egunean aipatutako argudioak.

Besterik gabe esan nahi nuen pena ematen didala, Arana jauna, zuk azkenean ez ulertzeak erakundea kentzeko arrazoiak. Zer egingo diogu, bada!

Horrelako kasuetan praktika ei da eman dezakegun adibiderik onena. Ziurrenik ohartuko zara Arartekoa funtzio hori betetzen aritu dela, aldundiek eta udalek ere hori egin dutela, gizarte-zerbitzuekin, eta inoiz ez direla babesik gabe geratuko adingabeak.

Gure alderdiaren ustez, adingabeak eskubideak dituzten subjektu ere badira, eta ez babesaren xede bakarrik. Eskubideak dituzten subjektuak dira, eta halakotzat jo nahi ditugu.

Niri harrigarria egiten zait zuk oraindik ere jarraitzea pentsatzen hau, nolabait ere, mendeku antzeko zerbait dela, lehengoan hitz hori erabili zenuen eta, nahiz eta une honetan ez duzun hitz hori erabili. Baina zure diskurtsoan sailburu andreari esan behar zenion guk bere garaian defentsoria ez genuenez onetsi, orain, Jaurlaritzara iritsitakoan, berriz ere hori kentzea erabaki dugula. Baina ez, hau alderdiaren jarrera da, eta funtzioak ez liratekeela bikoiztu behar pentsatzen jarraitzen dugu.

Eskerrik asko, eta tira, urte berri on.

La **PRESIDENTA**: Eskerrik asko, Laespada andrea.

Ondoren Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariak izango du hitza.

Ansotegi andrea, zurea da hitza.

La Sra. **ANSOTEGI ELORDI**: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos y a todas.

Cuando el pasado 17 de diciembre votamos a favor de devolver al Gobierno este proyecto de ley sobre la Ley para el Cuidado y la Protección de la Infancia y la Adolescencia, dijimos que esta ley estaba incluida en las mejoras de los programas de servicios sociales elaboradas por el Gobierno anterior.

También hablamos congruentemente al reconocer que había que profundizar en la figura de la defensoría y mejorarla, pero, con todo, apoyamos los derechos de un grupo especialmente vulnerable de nuestra sociedad.

Lege-proiektua itzultzearen alde entzun genituen arrazoiak mota honetako aldez aurretiko aldaketa batek berarenganako gaitzespena saihestearen eta, beharbada, adostasun handiagoa lortzearen ingurukoak ziren.

Las razones que escuchamos a favor de devolver este proyecto de ley, se refirieron a la necesidad de evitar un rechazo previo a esta modificación y, probablemente, a la necesidad de conseguir un mayor consenso.

Badirudi presa Gobernuaren aholkularia izan dela, defentsoria kentzearen ondorioz alternatibarik gabeko hutsa uzten digun aholkularia.

Parece que Presa haya sido asesor de este Gobierno, un asesor que como consecuencia de que se le haya quitado la defensoría, nos deja un vacío carente de alternativa.

Ez dirudi hain argia kendu nahi den irudiak alferreko funtzioen bikoizketa edota gainezarpen bat egiten duenik. Aitzitik, bere betebeharra adingabeen beharrizan partikularrak era espezifikoan bere gain hartzea da.

No parece tan claro que la figura que se quiere eliminar doble funciones inútilmente o las solapen. Por el contrario, su función principal es la de hacerse cargo específicamente de las necesidades particulares de los y las menores.

Kualitate eta jarrera hauek dira, hain zuzen ere, hain berezia den talde baten egoerari aurre egiteko defendatzen ditugunak; beraz, hori dela eta, egungo egoera mantentzearen aldeko jarrera azaltzen dugu, alternatiba sendo eta egitaratu bat aurkezten den arte.

Estas cualidades y posturas son, precisamente, las que defendemos para hacer frente a la situación de un colectivo tan especial; por tanto, y debido a ello, nos mostramos favorables al mantenimiento de la situación actual, hasta que no se presente un alternativa firme y un programa.

Azkenekoa naizenez, neuk ere, neure partetik ere, zorionak eta urte berri on denoi.

Como soy la última, yo también, por mi parte, les deseo feliz navidad y próspero año nuevo a todos y a todas.

Mila esker.

Muchas gracias.

**LEHENDAKARIAK**: Gracias, señora Ansotegi.

La **PRESIDENTA**: Eskerrik asko, Ansotegi andrea.

Señorías, agotado este debate, antes de levantar la sesión quiero decirles que hay una declaración institucional que voy a proceder a leer.

Legebiltzarkideok, eztabaida agortuta, baina osoko bilkurari amaiera eman baino lehen, ondoren irakurriko dizuedan erakunde-adierazpena dugula esan nahi dizuet.

"El cambio climático es la mayor amenaza medioambiental a la que se enfrenta la humanidad. Por eso, estamos obligados a trabajar para lograr un modelo energético sostenible y apostar por una revolución energética capaz de reducir las emisiones de $CO_2$ para evitar un cambio climático peligroso. Para ello, es fundamental un cambio en la forma de producir y usar la energía, que es la mayor fuente de emisiones de $CO_2$.

"Klima-aldaketa da gizateriak aurrean duen ingurumen-mehatxurik handiena. Hori dela eta, nahitaez lan egin behar dugu eredu energetiko iraunkor bat lortzeko eta apustu egin behar dugu klima-aldaketa arriskutsu bat ekiditeko $CO_2$ isurpenak murrizteko gai izango den iraultza energetiko baten alde. Horretarako, funtsezkoa da energia sortu eta erabiltzeko era aldatzea, horixe baita $CO_2$ isurpenen sorburu nagusia.

"El precario acuerdo al que se ha llegado en la cumbre de Copenhague está lejos de lo que la Unión Europea ha venido reclamando y ha dejado patente que, finalmente, han podido más los intereses económicos y geopolíticos de determinados países que las conclusiones de la comunidad científica internacional y las evidencias de agotamiento que presentan algunos de los ecosistemas más sensibles del planeta.

"Kopenhageko gailurrean iritsitako akordio eskasa urrun dago Europar Batasunak behin eta berriro eskatu duenetik eta argi utzi du ezen, azkenean, herrialde jakin batzuen interes ekonomiko eta geopolitikoak nagusitu direla nazioarteko komunitate zientifikoaren ondorioen eta Lurreko ekosistema sentikorrenek erakusten dituzten akidura-ebidentzien gainetik.

"La protesta pacífica de Greenpeace contra la pasividad de los gobernantes que participaron en la cumbre de Copenhague ha llevado a cuatro miembros de esta organización a cumplir prisión preventiva en la cárcel danesa de Vestre Faengsel, bajo acusaciones que pueden costarles hasta seis años de cárcel

"Greenpeacek protesta baketsua egin du Kopenhageko gailurrean parte hartzen zuten gobernarien pasibitatearen aurka eta, horren ondorioz, erakunde horretako lau kideri aurreneurrizko espetxealdia betearaziko diete Danimarkako Vestre Faengel espetxean, sei urte bitarteko espetxealdia bete beharra ekar die-

por expresar, de manera pacífica, la denuncia del fracaso mundial en la cumbre del medio ambiente.

"Este Parlamento entiende que esta cumbre no puede servir de disculpa para que algunos se desentiendan de su cuota de responsabilidad en el que va a seguir siendo el mayor de los retos al que se enfrente la comunidad internacional en los próximos años: el calentamiento global.

"Y por todo ello, el Parlamento Vasco:

"1. Reclama la inmediata puesta en libertad del director de Greenpeace España, Juan López de Uralde, y de los activistas Nora Christiansen, Christian Schmutz y Joris Thijssen, que también fueron detenidos por desplegar dos pancartas en la recepción oficial de la reina de Dinamarca a los jefes de estado durante la Cumbre del Clima en Copenhague.

"2. Solicita a la Unión Europea que no haga dejación de sus responsabilidades y reclama, especialmente a la Presidencia de España en la Unión Europea, que tome la sostenibilidad como eje conformador de un nuevo modelo económico para la Unión Europea y que, por tanto, Europa siga apostando por reducir las emisiones de $CO_2$ hasta un 30 % en 2020 y financiar a los países con más necesidades para que afronten la reducción de emisiones.

"3. Insta a todos los poderes públicos a incrementar nuestro compromiso de construir un nuevo modelo de desarrollo económico sostenible que deje atrás las políticas de especulación y consumo ilimitado de recursos naturales".

Señorías, antes de levantar la sesión quisiera desearles unas felices fiestas, una feliz navidad y los mejores deseos para este nuevo 2010.

Aprovecho también para agradecerles su trabajo durante este periodo de sesiones, un trabajo que espero que sea mejor, más en el próximo periodo de sesiones que empezaremos en el año 2010. Siempre más.

Gracias.

*Hamabiak eta berrogeita hamaika ziren.*

zaiekeen akusazioen pean, ingurumenari buruzko munduko gailurraren porrota modu baketsuan salatu izanagatik.

"Legebiltzarraren ustez, gailur honek ezin du aitzakia izan batzuek beren erantzukizun-kuotari muzin egiteko datozen urteotan Nazioarteko Komunitatearen erronkarik handiena izango den horretan: beroketa globala.

"Eta, hori guztia dela eta, Eusko Legebiltzarrak:

"1. Eskatzen du berehala aska ditzatela Espainiako Greenpeaceko zuzendari Juan López de Uralde eta Nora Christiansen, Christian Schmutz eta Joris Thijssen ekintzaileak, horiek ere atxilotuak izan baitziren Kopenhageko Klimari buruzko Gailurrean Danimarkako Erreginak estatuburuei egindako harrera ofizialean bi pankarta ateratzeagatik.

"2. Eskatzen dio Europar Batasunari ez ditzala alde batera utzi bere erantzukizunak eta eskatzen dio, EBn Espainiak duen Presidentziari bereziki, har dezala iraunkortasuna EBrentzako eredu ekonomiko berri bat osatzeko ardatz gisa eta, horrenbestez, Europak jarrai dezala apustu egiten 2020an $CO_2$ isurpenak % 30 murriztearen alde eta isurpenak murrizteko behar handiena duten herrialdeak finantzatzen.

"3. Eskatzen die botere publiko guztiei areagotu dezatela garapen ekonomiko iraunkorreko eredu berri bat eraikitzeko konpromisoa, espekulazio-politikak eta natur baliabideak neurririk gabe kontsumitzeko politikak alde batera uzteko".

Legebiltzarkideok, osoko bilkurari amaiera eman aurretik, jai zoriontsuak, Eguberri zoriontsua eta 2010. urterako desiorik onenak opa dizkizuet.

Horrezaz gain, aukera honetaz baliatu nahi nuke bilkuren aldi honetan egindako lana eskertzeko. 2010ean hasiko dugun bilkuren aldian lana hobeto eta gehiago egitea espero dut. Beti gehiago.

Eskerrik asko.

*Eran las doce horas y cincuenta y un minutos.*

Imprime : Parlamento Vasco
Becerro de Bengoa, 01005 Vitoria-Gasteiz
D. L. VI-87/95

Inprimatzaile : Eusko Legebiltzarra
Becerro de Bengoa, 01005 Vitoria-Gasteiz
L. G. VI-87/95